



**GOBERNU BATZARRA – JUNTA DE GOBIERNO  
2019/11/27**

**A**

1

Nº.....ZKA.

**GOBERNU BATZARRAK  
2019KO AZAROAREN 27AN  
EGINDAKO OHIKO  
BATZARRAREN  
OB06-19 zka. AKTA**

**ACTA nº OB06-19  
SESIÓN ORDINARIA  
DE LA  
JUNTA DE GOBIERNO DE  
27 DE NOVIEMBRE DE 2019**

**BERTARATU DIRANAK:**

**PRESIDENTEA:**

Andere Ortuzar Uribe and.

**PRESIDENTEORDEA:**

Gurutze Etxebarria and.

**MAHAIKIDEAK:**

Jesús María Etxebarria jna.  
Asier García jna.  
Alberto Intxaurreaga jna.  
Aitor Sorriketa jna.  
Josu Gorospe jna.  
Illart Gumuzio jna.  
Saioa Elejabarrieta and.

**BAIT. IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA:**

Maren Iturbe Llorente jna.

**ASISTENTES:**

**PRESIDENTA:**

Doña Andere Ortuzar Uribe

**VICEPRESIDENTA:**

Dña. Gurutze Etxebarria

**VOCALES:**

D. Jesús María Etxebarria  
D. Asier García  
D. Alberto Intxaurreaga  
D. Aitor Sorriketa  
D. Josu Gorospe  
D. Illart Gumuzio  
Dña. Saioa Elejabarrieta

**SECRETARIO-INTERVENTOR ACCTAL:**

D. Maren Iturbe Llorente

Igorren, ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA Udal-Gaindiko Erakundearen Egoitzan, bi mila eta hemeretzi azaroaren hogeita zazpian, goizeko bederatzia diranean, ohiko Gobernu Batzarra batu da eta goian adierazo diran jaun-andreak bertaratu dira; ez da bertaratu ostera Iturrioz jan mahaikidea; Presidentea Andere Ortuzar Uribe andrea izan da eta bait. Idazkari-Kontuhartzailea, barriz, Maren Iturbe Llorente jauna; hori dana, egiteko asmoz deitu dan batzarra lehenengo deialdian egitearren egin dabe.

En Igorre, en la Sede de la Entidad Supramunicipal ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA a veintisiete de noviembre de dos mil diecinueve, siendo las nueve horas, se constituyó en sesión ordinaria ésta Junta de Gobierno los señores/señoras que arriba se citan, no asistió el Sr. Iturrioz, bajo la Presidencia de doña Andere Ortuzar Uribe, asistidos todos/as por el Secretario-Interventor acctal. don Maren Iturbe Llorente, todo ello al objeto de celebrar en primera convocatoria la sesión convocada al efecto.

**1.- EGINDAKO BILERAKO AKTA  
ZIRRIBORROA ONARPEN,  
BIDEZKOA BADA:**

**- 2019KO URRIAREN 30EAN**

“Ostean Jarduneko Presidente andreak berba egin dau eta Idazkariari agindu deutso 2019/10/30ean Gobernu Batzarrak egin eban batzarraren ganeko

**1º.- APROBACIÓN SI PROCEDE  
DEL BORRADOR DEL ACTA DE LA  
SESIÓN CELEBRADA CON FECHA:**

**- 30 DE OCTUBRE DE 2019**

“Acto seguido toma la palabra la Sra. Presidenta en funciones quien ordena al Sr. Secretario que proceda a dar lectura al borrador del Acta correspondiente a la



**GOBERNU BATZARRA – JUNTA DE GOBIERNO  
2019/11/27**

A

2

Nº.....ZKA.

aktaren zirriborroa irakurri daijala. Irakurri eta gero, aho batez ontzat emon dabe aktea.-"

**2.- GAIA: ONESTEA, BIDEZKOA BADA, AUM ETA GAZTAROA-SARTU KOOPERATIBA ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, 2019. URTEAN ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKIKO JARDUERAK GARATZEARI BURUZKOA.**

"OINARRIA Lanbide-Euskal Enplegu Publikoko Zuzendari nagusiaren 2019ko martxoaren 25eko Ebazpenaren bidez enpleguaren arloko tokiko ekintzak 2019. urtean garatzeko laguntzen deialdia argitaratu zen, 2019ko martxoaren 25eko 58 zenbakidun EHAOn.

IKUSI DA ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEko Gobernu Batzarrakerak, 2019/10/30ean egindako ohiko bileran, gai-zerrendako 1. puntuan, AUMk enplegua sustatzeko norgehiagoka araudian ematen dituen diru-laguntzak adjudikatu zituela, 2019. urtean inklusiorako enpresei edo irabazi asmorik gabeko entitateei zuzenduta daudenak.

ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEko Gobernu Batzarrak aurrez esandakoaren jakitun da, eta eztabaidatu ondoren, bertaratutako kide guztiek AHO BATEZ honako hau erabaki zuten:

1.- Onestea ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEaren eta GAZTAROA-SARTU KOOPERATIBA ELKARTEA"- IFK: G48211080 arteko lankidetzaren bat sinatzea, entitateari adjudikatu zaizkion proiektuak ondo gauza daitezen, eta honako baldintza hauek bete daitezen:

**BILDURIK**

Batetik,  
ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEKO Presidentea  
Andere Ortuzar Uribe and.,

eta bestetik,  
"GAZTAROA-SARTU KOOPERATIBA ELKARTEA"ren  
Zuzendaria Karmele Artaraz Etxebarria andrea.

Sesión de la Junta de Gobierno celebrada con fecha 30/10/2019, la cual fué aprobada por unanimidad.-"

**2º.- ASUNTO: APROBACIÓN SI PROCEDE DEL ACUERDO DE COLABORACIÓN ENTRE AUM Y "GAZTAROA-SARTU KOOPERATIBA ELKARTEA" PARA EL DESARROLLO DE ACCIONES LOCALES DE PROMOCIÓN DE EMPLEO EN EL AÑO 2019.**

"VISTA la Resolución de 28 de febrero de 2019, del Director General de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, publicó la convocatoria de ayudas para el desarrollo de acciones locales de empleo para el año 2019, publicada en el B.O.P.V. nº 58, de 25 de marzo de 2019

VISTO que la Junta de Gobierno de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA, en sesión ordinaria celebrada con fecha 30/10/2019, en el Punto 1º del Orden del Día se procedió a la adjudicación a la de las subvenciones que concede AUM en régimen de concurrencia competitiva en materia de fomento del empleo, dirigidas a entidades sin ánimo de lucro para el año 2019.

La Junta de Gobierno de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA, quedó debidamente enterada de todo lo anteriormente expuesto, tras un debate por UNANIMIDAD de los Vocales presentes, acordó:

1º.- Aprobar la firma de un "Acuerdo de Colaboración entre ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA y "GAZTAROA-SARTU KOOPERATIBA ELKARTEA"- C.I.F.: G48211080 a fin garantizar la correcta ejecución y de los proyectos adjudicado a la misma, en los siguientes términos:

**REUNIDAS**

De una parte,  
Doña Andere Ortuzar Uribe, Presidenta de  
ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA,

y de la otra,  
Doña Karmele Artaraz Etxebarria,  
Directora de "GAZTAROA-SARTU KOOPERATIBA



## GOBERNU BATZARRA – JUNTA DE GOBIERNO 2019/11/27

A

3

Nº.....ZKA.

### ELKARTEA”.

Bi aldeek elkarri behar adinako gaitasuna aitortzen diote hitzarmen hau sinatzeko, eta

Ambas partes se reconocen la capacidad suficiente para la firma del presente Acuerdo y, para ello,

### **AZALDU DUTE:**

A).- "GAZTAROA-SARTU KOOPERATIBA ELKARTEA" Gaztaroa\_Sartu kooperatiba, lan eta ekimen sozialean oinarritutako elkarte da. Bizkaian aritzen da, Gizarte Zerbitzuen barnean, eta zerbitzu publikotzat hartzen dute bere burua, gizarte bazterketaren kontra borroka egitea bere helburua izanik.

Gizarte zerbitzuen arloan lan egiten duten irabazi-asmorik gabeko hiru erakundeekin batera (Erroak, Zabaltzen eta Sartu Araba) sortzen dute Sartu Taldea; Euskal Autonomia Erkidegoan aritzen direlarik.

Gaztaroa, Gaztaroa elkartearen ekimen soziala kooperatiba bilakatu zenean emandako transformazio unibertsalaren emaitza da (Elkartearen eraketa data: 1986ko martxoaren 6an), eta bere estatutuak zehaztenduen moduan, bere helburu soziala eta lan eremua ondorengo da:

"Sozietate kooperatiba honen helburua, gizarte txertaketa sustatzeko beharrezkoak diren ekimen eta aktibitateak garatzea da, desabantaila, dependentzia, ezgaitasun, txirotasun eta, gizarte bazterketa, edo gizarte bazterketa pairatzeko arriskuan dauden pertsonak eto/edo taldeen gizarte txertaketa bermatzeko; hurrengo kolektiboek lehentasuna emanaz:

- Genero indarkeriaren biktimak,
- Hautzaroa eta gaztaroa,
- Zaurgarritasun egoeran dauden adingabeak,
- Babesik gabeko adingabeak,
- Emakumeak,
- Erregu/artasun eta irregu/artasun egoera administratiboan dauden immigranteak,
- Dependentzia duten eta independenteak diren pertsona he/duak,
- Ezgaitasun fisiko, psikiko eta/edo zentzumen-ezgaitasuna duten pertsonak.
- Osasun arazoak dituzten pertsonak, bereziki osasun mentala, dependentziak ...
- Askatasunik gabeko egoeran dauden edo egon diren pertsonak, edozein gradutan edo egoera administratiboan.
- Gutxieneko etniak,
- Lan-egoera ezegonkorra duten edo enp/egu eta/edo formakuntza-hobekuntza eskatzen duten pertsonak.
- Edozein prestakuntza soziala jasotzen duten pertsonak.
- Birgaikuntza profesionala behar duten pertsonak.

• Gizarte-zerbitzuen baliabide komunitario sarean sostengu-soziala eskatzen duten pertsonak.

• Langabezi egoeran daude pertsonak, bereziki emakumeak, gazteak, 45 urte baino gehiago duten pertsonak, epe-luzeko eta epe oso luzeko langabeak etab.

• Gizarte isolamendua pairatzen duten pertsonak.

Helburu hauek bete ahal izateko, behin beharrezkoak diren baldintza legalak beteta, hurrengo aktibitateak

### **EXPONEN QUE:**

A).- "GAZTAROA-SARTU KOOPERATIBA ELKARTEA" es una cooperativa de trabajo asociado e iniciativa social, que desarrolla su actividad en Bizkaia, dentro del sector de los Servicios Sociales, y que desde un planteamiento de servicio público, tiene como finalidad la lucha contra la exclusión social.

Toma parte junto con tres asociaciones sin ánimo de lucro (Erroak, Zabaltzen y Sartu Araba), del Grupo Sartu, cuyo ámbito de actuación es la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Gaztaroa es fruto de la transformación universal en cooperativa de iniciativa social, de la asociación Gaztaroa (fecha de constitución de la asociación: 6 de marzo de 1986), y su ámbito de trabajo y objeto social, de conformidad con lo previsto en sus estatutos es:

"El objeto de esta sociedad cooperativa es la promoción y desarrollo de actividades y servicios encaminados a conseguir la plena inclusión social de personas y/o grupos en situación de dependencia, desprotección, discapacidad, pobreza y, exclusión social, o en riesgo de estarlo, atendiendo de modo preferente a los siguientes colectivos:

- Víctimas de violencia de género,
- Infancia y juventud,
- Menores en situación de vulnerabilidad,
- Menores no acompañados/as,
- Mujeres,
- Inmigrantes en situación administrativa regular e irregular,
- Personas mayores válidas y no válidas,
- Personas con discapacidad física, psíquica y/o sensorial,
- Personas con problemas de salud, especialmente salud mental, adicciones, ...
- Personas privadas de libertad en cualquier grado o situación administrativa y ex-penadas.

- Minorías étnicas,
- Personas con empleo precarios o que demanden una mejora de empleo y/o formación,
- Personas receptoras de cualquier prestación social.
- Personas que requieran una recualificación profesional
- Personas que demandan apoyo social de la red de recursos comunitarios de servicios sociales
- Personas desempleadas, especialmente mujeres, jóvenes, mayores de 45 años, personas paradas de larga y muy larga duración, etc.

• Personas en situación de aislamiento social

Para la consecución de dichos fines se llevarán a cabo, previo el cumplimiento de los requisitos legales



## GOBERNU BATZARRA – JUNTA DE GOBIERNO 2019/11/27

A

4

Nº.....ZKA.

garatuko dira:

- Aipatutako pertsona eta taldeentzako harrera, informazio, orientazio, akonpainamendu eta gaikuntza pertsonal eta teknikorako zerbitzuak eta ekintzak.
- Lan-bitartekotza eta enpleguaren sarbidea, norbere kontura edo inoren kontura, sustatzeko zerbitzuak eta ekintzak.
- Lan eta merkatal estruktural bultzatzea, kudeatzea eta ikertzea, ekonomia sozial eta solidarioa oinarria izanik, parte hartzaileen lan eta gizarte txertaketa bultzatuz.
- Aipatutako pertsona eta taldeei buruzko ikasketak eta ikerketak egin, baita azaldutako zerbitzu eta ekintzei buruz. Plan eta diagnostikoak garatu, ikerketa aplikatua.
- Aholkularitza eta formakuntza elkarte eta profesionalei, garapen komunitario eta gizarte txertaketa eremuan programa berritzaileak diseinatu eta praktikara eraman.
- Aktibitate, zerbitzu eta gizarte txeraketaren aldeko ekintza zehatzak langileei, bereziki bazterketa egoeran egoteko arriskuan daudenak, hala nola gazteak, emakumeak, aniztasun funtzionala duten pertsonak, 45 urte baina gehiago dutenenak eta bazterketa egoeran edo bazterketa egoeran egoteko arriskuan dauden kolektiboak.
- Modu zuzen edo zeharkako batean, elkartearen helburuekin bat datozen elkarte pribatu eta partikularrak aholkatu aktibitate, zerbitzu eta ekintza ezberdinen bidez.
- Gizarte txertaketaren aldeko ekintza eta zerbitzu sozio-hezitzaileak eremu ireki zein itxian, bazterketa altuan (haurtzaroa eta gaztaroa, kale egoeran dauden pertsonak eta abar).
- Ijito eta gutxieneko etnien gizarte-txertaketa aldeko aktibitate eta zerbitzuak.
- Esku-hartze sozio-hezitzaile eta psiko-sozialak.
- Parte-hartze soziala eta gizarte-txertaketa bultzatzeko aktibitate eta zerbitzuak.
- Aktibitateak eta informazio zerbitzuak eta arreta genero indarkeria pairatu duten emakumeei.
- Bitartekotza zerbitzuak gizartean, auzo mailan, komunitatean, kulturala aniztasunaren eremuan, emakumezko eta gizonezko berdintasuna bultzatzeko, eta abar.
- Bitartekotza familiarrarekin erlazioaturiko aktibitateak eta zerbitzuak, guraso eta seme-alaben artean zein bikote harremanetan.
- Lehenago aipaturiko pertsonak eta/edo taldeen gizarte-txertaketa ahalbidetzeko aktibitateak eta zerbitzuak, centro okupazional, eguneko egoitza edo bizitegi-egoitzetan.
- Sexu arrazoigatik baztertuak diren pertsonen txertaketa soziala bultzatzeko aktibitateak eta zerbitzuak.
- Lehenago aipaturiko kolektiboak izan ahal dituzten beharrak (etxebizitza, osasuna, kultural, hezkuntza, kontsumoa, eta abar) asetzera bideratutako edozein zerbitzu eta ekintzak.

establecidos, las siguientes actividades:

- Servicios y acciones para la acogida, información, orientación, acompañamiento y capacitación personal y técnica de dichas personas y grupos.
- Servicios y acciones para la intermediación laboral y la promoción del acceso al empleo, tanto por cuenta propia como ajena.
- Promoción, gestión y seguimiento de estructuras mercantiles y laborales, de manera prioritaria dentro de los fundamentos de la economía social y solidaria, que favorezcan los procesos de inclusión social y laboral de sus participantes.
- Estudios e investigaciones sobre dichas personas y grupos, y sobre los servicios y acciones descritas. Realización de diagnósticos y planes, investigación aplicada.
- Asesoramiento y formación a organizaciones y profesionales, diseño y puesta en marcha de programas innovadores en el ámbito de la inclusión social y el desarrollo comunitario.
- Actividades, servicios y acciones específicas de inclusión social y formación e información de trabajadores y trabajadoras, en especial aquellos que se encuentran en riesgo de exclusión, tales como jóvenes, mujeres, personas con discapacidad, mayores de 45 años y otros colectivos en situación de exclusión o riesgo de estarlo.
- Actividades, servicios y acciones para el asesoramiento de entidades particulares y públicas que, directa o indirectamente, puedan aportar sus posibilidades a los fines de la entidad.
- Actividades y servicios socioeducativos en medio abierto o cerrado, de inclusión social de alta exclusión (infancia y juventud, personas sin domicilio, ... )
- Actividades y servicios encaminados a apoyar la inclusión social de las personas gitanas y otras minorías étnicas.
- Actividades de intervención socioeducativa y psicosocial.
- Actividades y servicios de promoción de la participación y la inclusión social.
- Actividades y servicios de información y atención a mujeres víctimas de violencia doméstica o por razón de sexo.
- Servicios de mediación social, vecinal, comunitaria, intercultural, tomento de la igualdad entre mujeres y hombres, etc. ...
- Actividades y servicios encaminados a la mediación familiar, tanto en las relaciones paterno/materno/filiales, como a las relaciones de pareja.
- Actividades y servicios de taller ocupacional, centro ocupacional o centro de día o residenciales para atender necesidades de inclusión social de los grupos y/o personas anteriormente descritos.
- Actividades y servicios encaminados a la inclusión social de personas discriminadas por motivos sexuales.
- Cualesquiera otros servicios y acciones encaminadas a la atención de las necesidades que, de cualquier índole, presenten los colectivos descritos con anterioridad (vivienda, salud, cultura, educación,





## GOBERNU BATZARRA – JUNTA DE GOBIERNO 2019/11/27

A

5

Nº.....ZKA.

Horrela, lehen aipaturiko helburuak betetzeko asmoarekin, aktibitate ezberdinak garatzen dira Administrazio Publikoen kolaborazioarekin, hurrengo organismoekin: Europar Batasuna, INEM-SPEE, LANBIDE, Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia, Udalak, HOBETUZ, Asociación SENDOTU, Kutxabank, s.A. (Gizarte Ekintza) eta abar.

B).- ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA udalez gairik entitate bat da, Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Igorre, Lemoa, Ubide eta Zeanuriko udalerriek osatua, guztiak ere Bizkaiko Lurralde Historikokoak. Udalari horiek osatutako mankomunitateak nortasun juridiko osoa du, Toki-arabidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeko 44. artikuluan xedatuaren arabera, bere estatutuetan adierazitako udal eskumeneko xedeak betetzeko, bai eta etorkizunean ezar daitezkeen beste xede batzuetarako ere.

C) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2019ko otsailaren 28ko Ebazpenaren (aurrerantzean Ebazpena) barruan ageri diren enpleguaren sustapenerako jarduketak egitea helburu duen Arratiako Udalen Mankomunitatearen diru-laguntzen 2019ko deialdiaren bidez, AUMko Gobernu Batzarrak 2019ko urriaren 30ean egindako bileran "GAZTAROA-SARTU KOOPERATIBA ELKARTEA" erakunde laguntzaile izendatu da adierazitako proiektuak egiteko, langabetuen enplegugarritasuna hobetzearen helburua lortze aldera.

Azaldutakoa dela eta bi aldeek lankidetzaz hitzarmen hau izenpetzen dute, honakoan arabera:

### **ESTIPULAZIOAK:**

#### **LEHENENGOA: XEDEA**

Akordio honen xedea, sinatu duten alde bien arteko lankidetzaz da, enpleguaren sustapenerako tokiko ekintzak garatu eta gauzatzeko. Horretarako, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2019ko otsailaren 28ko Ebazpenaren barruan ageri diren enpleguaren sustapenerako jarduketak egingo dira, ebazpen hori kontuan hartu beharreko oinarriko arau-erretzentzia izango baita Akordio honen indarraldi osoan.

#### **BIGARRENA: GARAPENA**

1. Enplegua sustatzeko jardueren artean honako proiektu bi (2) hauek burutuko dira:
  - Administrazioa hobetzeko: Gardentasuna.
  - Administrazioa hobetzeko: AUMko artxiboa digitalizatzea
  - Administrazioa hobetzeko Arratiako Bake-epaitegiaren artxiboak digitalizatzea.

consumo, etc.).

Así, en el afán de cumplir con los fines descritos, realiza todo tipo de actividades en colaboración con las Administraciones Públicas tales como Unión Europea, INEM-SPEE, LANBIDE, Gobierno Vasco, Diputación Foral de Bizkaia, Ayuntamientos, HOBETUZ, Asociación SENDOTU, Kutxabank, s.A. (Obra social), etc.

B).- ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA es una Entidad de carácter supramunicipal integrada por los municipios de Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Igorre, Lemoa, Ubide y Zeanuri, todos ellos pertenecientes al Territorio Histórico de Bizkaia, que constituyen la Mancomunidad con plena personalidad jurídica, conforme a lo dispuesto en el artículo 44 de la Ley 7/85, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, al objeto de cumplir los fines de competencia municipal señalados en sus Estatutos, así como otros fines que se establezcan con posterioridad.

C) Mediante convocatoria 2019 para la concesión de subvenciones de Arratiako Udalen Mankomunitatea con el objetivo de desarrollar actuaciones de fomento del empleo contenidas en la Resolución de 28 de febrero de 2019, del Director General de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo (en adelante la Resolución), "GAZTAROA-SARTU KOOPERATIBA ELKARTEA" ha sido designada, en Junta de Gobierno de AUM celebrada el 30 de octubre de 2019, como entidad colaboradora para desarrollar los proyectos señalados con el objetivo de la consecución de la mejora de la empleabilidad de las personas desempleadas.

En virtud de lo expuesto, ambas partes suscriben el presente Acuerdo de colaboración de acuerdo a las siguientes

### **ESTIPULACIONES:**

#### **PRIMERA: OBJETO**

El objeto del presente Acuerdo es la colaboración entre las dos partes firmantes para el desarrollo y ejecución de acciones locales de promoción de empleo a través de actuaciones de fomento del empleo señaladas en la Resolución de 28 de febrero de 2019, del Director General de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, referencia normativa básica a tener en cuenta a lo largo de la vigencia del presente Acuerdo.

#### **SEGUNDA: DESARROLLO**

1. Las actuaciones para el fomento del empleo se concretarán en la ejecución de los siguientes tres (3) proyectos:
  - Mejora de la Administración: Transparencia.
  - Mejora de la Administración: Digitalización del Archivo de AUM.
  - Mejora de la Administración: Digitalización de los Archivos de los Juzgados de Paz de Arratia.



## GOBERNU BATZARRA – JUNTA DE GOBIERNO 2019/11/27

A

6

Nº.....ZKA.

2. Helburuei, jarduerai, giza baliabideei eta materialei dagokienez, proiektuak garatzean "GAZTAROA-SARTU KOOPERATIBA ELKARTEA"k diru-laguntza jasotzeko aurkeztutako agirien edukiak hartuko dira kontuan.
3. Proiektu horiek egikaritzeko hiru (3) pertsona kontratatu beharko dira: hiru (3) administrari.
4. Kontratuek sei (6) hilabeteko iraupena izango dute eta 2019ko abenduaren 1etik 2020ko ekainaren 30era garatuko dira.
5. Kontratu bakoitzeko aurreikusita dagoen gehieneko laguntza 13.600,00 euro da (denboraldi osoa). Proiektuz proiektu, kopuruak hauek izango dira:
  - Administrazioa hobetzeko:  
Gardentasuna..... 13.600,00 euro
  - Administrazioa hobetzeko:  
AUMko artxiboa digitalizatzea  
13.600,00 euro
  - Administrazioa hobetzeko:  
Arratiako Bake-Epaitegiaren  
artxiboak digitalizatzea  
13.600,00 euro
6. Diru-laguntza honek estaltzen dituen gastuak soldaten kostuak eta gizarte segurantzarenak dira, eta laguntzaren azken kopurua, gehienez, kostu horien % 100 izango da.
7. Kontratazioek Ebazpenaren 2.artikuluaren 6.1 Puntuan azaltzen diren baldintzak bete beharko dituzte.

### **HIRUGARRENA: PRESTAZIO EKONOMIKOAK**

1. ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAK hitzematzen du 40.800,00 euroko ordainketa egingo duela 2019ko eta 2020ko aurrekontuko "Enpleguaren Sustapena" partidaren pentzura. Ordainketa hori bi alditan egingo da:

- a) Lehenengo ordainketa, emandako diru-laguntzaren % 55 (22.440,00 euro), hitzarmen hau sinatu ondoren, eta Lanbidek ondorio horretarako argitaratutako ebazpenean ageri den kopurua adjudikatu eta AUMn sartu ondoren.
- b) Bigarren ordainketa, gainerako % 45 (18.360,00 euro) edo justifikazioaren ondorioz ateratzen den kopurua, proiektua amaitu ondoren eta 2019ko otsailaren 28ko Ebazpenaren 9. artikuluan aurreikusitako baldintzen arabera gastuak justifikatu ondoren.

2. "GAZTAROA-SARTU KOOPERATIBA ELKARTEA"k hau hitzeman du:

- a) Soldaten kostuak eta gizarte segurantzarenak estaltzeko aurreikusita dagoen 40.800,00 euroko gehieneko laguntzaren kopurua gainditzen duten kostuaren gaindikina osatuko du.
- b) Proiektu horien garapenaren berezko funtzionamenduko edo egiturazko kostu bat ere ez du jasanaraziko.

### **TERCERA: PRESTACIONES ECONÓMICAS**

1. ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA se compromete a efectuar el pago de 40.800,00 euros, con cargo a la partida presupuestaria del ejercicio 2019 y del 2020 denominada "Promoción del Empleo", que se hará efectivo en dos plazos:

- a) Un primer pago, por un importe del 55% (22.440,00 euros) de la subvención concedida tras la firma del presente convenio y tras la adjudicación e ingreso en AUM de la cantidad que figure en la correspondiente Resolución de Lanbide publicada al efecto.
- b) Un segundo pago, del 45% (18.360,00 euros) restante o la cantidad que resulte de la justificación, tras la finalización del proyecto y una vez justificados los gastos en los términos previstos en el artículo 9º de la Resolución de 28 de febrero de 2019.

2. "GAZTAROA-SARTU KOOPERATIBA ELKARTEA" se compromete a:

- a) Complementar el exceso del coste que superen la cuantía de la ayuda máxima total prevista de 40.800,00 euros para cubrir los costes salariales y de seguridad social.
- b) No repercutir ningún tipo de coste de funcionamiento o de estructura propios por el desarrollo de estos proyectos.



## GOBERNU BATZARRA – JUNTA DE GOBIERNO 2019/11/27

A

7

Nº.....ZKA.

c) Diru-laguntzaren justifikazioa aurkeztuko du proiektuak amaitu ondoren, Ebazpenaren 9. artikuluan eskatzen diren agiriekin, 2020ko irailaren 15eko mugaeguna baino lehen.

c) Presentar la justificación de la subvención tras la finalización de los proyectos con la documentación solicitada en el artículo 9º de la Resolución antes de la fecha límite del 15 de septiembre de 2020

### **LAUGARRENA: JARRAIPEN BATZORDEA**

Jarraipen batzorde bat eratuko da, esku hartzen duten alde bakoitzaren bina ordezkariarekin.

### **CUARTA: COMISIÓN DE SELECCIÓN Y SEGUIMIENTO**

Se constituirá una Comisión de Selección y Seguimiento, formada por dos representantes de cada parte interviniente.

### **BOSGARRENA: EPEA**

Lankidetzak akordio honek indarraldia 2019ko abenduaren 1etik 2020ko irailaren 15era arte izango du.

Hitzarmenak indarra duen aldian, bi aldeek hura amaiazteko eskatu ahalko dute eta proposatu ahalko dute hura buka dadin, bukaerako data baino hiru hilabete lehenago aurkeztutako idazkiaren bitartez. Nolanahi ere, bi aldeek konpromisoa hartzen dute lan planetan onetsi baina akordio hau bukatutzat eman baino lehen bidean zeuden ekintzak amaitzeko.

### **QUINTA: PLAZO**

El presente Acuerdo de colaboración tendrá una desde el día 1 de diciembre de 2019 al 15 de septiembre de 2020.

Durante el plazo de vigencia ambas partes podrán denunciarlo y proponer su finalización mediante escrito presentado con tres meses de antelación a la fecha de finalización. En cualquier caso, ambas partes se comprometen a concluir cualesquiera acciones que, habiendo sido aprobadas en los planes de trabajo, se encontraran en proceso antes de dar por finalizado el presente acuerdo.

### **SEIGARRENA: KONFIDENTZIALTASUNA**

Bi erakundeek betebeharrak da, oro har, zehaztasunari eta konfidentziaztasunari eustea eman diren emaitzei edo proiektuak egin eta garatzearen ondorioz ezagutu diren datu, material, metodologia, garapen edo emaitzei buruz, hirugarrenek haiek ezagutu ditzaten saiheste aldera.

Lanen ondorioz ezagutzen diren datu, material, metodologia, garapen edo emaitzetan eragina duten jarduketak guztietarako bi erakundeetako arduradunen berriarazko baimena beharko da.

Informazioa industria edo enpresa-sekretutzat joko da, Lehia Desleialari buruzko 1991eko urtarrilaren 10eko 13. artikuluan kontzeptu horiei ematen zaien esanahiaren arabera. Eta halaber, izaera pertsonaleko datu guztiak guztiz era pribatuan tratatzeko konpromisoa hartzen dute, 2016/679 (DBEO) eb datuen babeserako erregelamendu orokorrean ezarritakoaren arabera eta abenduaren 5eko datu pertsonalen babeserako eta eskubide digitalen bermerako 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera (DPBEBLO) garatzeko onetsi zen.

Hori dela eta, proiektuetan inplikaturako pertsona guztiek konfidentziaztasun kontratu bat sinatu beharko dute. Kontratu hori akordio honi erantsiko zaio.

### **SEXTA: CONFIDENCIALIDAD**

Es obligación de ambas instituciones, de forma general, mantener la reserva y confidencialidad sobre los datos, materiales, metodologías, desarrollos o resultados suministrados o que se conozcan como resultado de la ejecución y desarrollo de los proyectos, a efectos de impedir su conocimiento por terceras personas.

Cualquier actuación que atecte a datos, materiales, metodologías, desarrollos o resultados suministrados o que se conozcan como resultado de la ejecución deberá contar con la autorización expresa de los responsables de ambas instituciones.

La información tendrá la consideración de Secreto Industrial o Empresarial, en el sentido que a tales conceptos otorgue el Art. 13 de la Ley de Competencia Desleal de 10 de Enero de 1991. Y se comprometen también a tratar de forma absolutamente confidencial todos sus datos de carácter personal según lo establecido en el Reglamento General de Protección de Datos UE 2016/679 (RGPD) y Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de protección de datos personales y garantía de los derechos digitales (LOPDGDD).

Por ello, todas las personas implicadas en los proyectos, deberán firmar un contrato de confidencialidad, el cual se anejará al presente Acuerdo.

### **ZAZPIGARRENA: AITORPENA**

Bi aldeek konpromisoa hartzen dute elkarri laguntzeko aurrera eramaten diren ekintza, dokumentu eta ekimen guztietan, bi aldeek baterako parte-hartzea zehaztuz, betiere bi erakundeek logo eta ikurrak sartuz

### **SÉPTIMA: RECONOCIMIENTO**

Ambas partes se comprometen a reconocer la colaboración mutua en cuantas acciones, documentos e iniciativas se lleven a cabo, mediante la especificación de la participación conjunta de las



## GOBERNU BATZARRA – JUNTA DE GOBIERNO 2019/11/27

A

8

Nº.....ZKA.

eta euskara erabiliz.

partes y la inclusión de los logos o emblemas de ambas instituciones y el uso del euskara.

### **ZORTZIGARRENA: EZ-BETETZEAK ETA GATAZKEN KONPONBIDEA**

Aldeetako batek hitzarmen honetan eta, hari gehitzen zaizkion kasuko eranskinetan hartutako betebeharrak ez betetzeak ahalmena emanen dio besteari hitzarmenari amaiera emateko.

Esku hartzen duten aldeek erabaki dute ezen agiri honekin lotutako gaietako batean adostasunera iristen ez badira, Bilboko epaile eta epaitegiak izango direla eskudunak hitzarmen honen interpretazioari, exekuzioari edo eraginei buruzko gai edo erreklamazioak ebazteko.

Eta hitzarmen honen edukiarekin ados daudela adierazteko, eta haren indarrez beren buruei betebeharrak ezarri nahian, esku-hartzaileek hitzarmen honen bi ale sinatu dituzte, bakoitzak bere ordezkartzarekin, goian adierazitako tokian eta datan.  
Andere Ortuzar Uribe and.  
ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA  
PRESIDENTEA

2.- Erabaki hau "GAZTAROA – SARTU KOOPERATIBA ELKARTEA erakundeari, jakinaraziko zaio, ondorio egokiak izan ditzan."

### **3.1.- GAIA: 2020an ZERBITZU EMATEKO ENPRESEKIN KONTRATU TXIKIAK SINATZEKO PROPOSAMENA:**

#### **AHOLKULARITZA ETA LAGUNTZA-ZERBITZUA KONTABILITATE ARLOAN**

"Gero Presidente andereak hitz egin du eta Gobernu Batzarraren mahaikideei jakinarazi die 2019/12/31n amaituko dela "ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEKO KONTU-HARTZAILETZARI KONTABILITATE GAIAN AHOLKUAK EMAN ETA LAGUNTZEKO ZERBITZUA" emateko "MIKEL MENDIZABAL & CIA. S.A." enpresarekin (IFK zk.: A48127815) sinatutako kontratua.

OINARRIA: Aztertu da "MIKEL MENDIZABAL & CIA., S.A.", (IFK zk.: A-48127815) enpresari bidalitako idazkia, 2019/10/23koa, 2020. urtean "ARRATIAKO

### **OCTAVA: INCUMPLIMIENTO Y RESOLUCIÓN DE CONFLICTOS**

El incumplimiento por una de las partes de las obligaciones contraídas en el presente convenio y en los anexos correspondientes que a él se sumen, suscritos por ambas partes, facultará a la otra parte a resolver el mismo.

Las partes intervinientes acuerdan que, caso de no alcanzar consenso en alguno de los asuntos relacionados con el presente documento, serán los Jueces y Tribunales de Bilbao los competentes para resolver cualquier cuestión o reclamación relativa a la interpretación, ejecución o efectos del presente convenio.

Y en prueba de conformidad con el contenido del presente Acuerdo, y deseando obligarse a tenor del mismo, firman las partes intervinientes, en su respectiva representación, por duplicado ejemplar, en el lugar y fecha arriba indicados.  
Karmele Artaraz Etxebarria and.  
GAZTAROA SARTU KOOP ELKARTEA  
ZUZENDARIA

2º.- Notifíquese el presente acuerdo a "GAZTAROA – SARTU KOOPERATIBA ELKARTEA", todo ello a los efectos oportunos."

### **3.1.- ASUNTO: PROPUESTA DE FIRMA CON EMPRESAS DE CONTRATOS MENORES PARA LA PRESTACIÓN DURANTE EL AÑO 2020:**

#### **SERVICIO DE CONSULTORIA Y ASISTENCIA EN MATERIA CONTABLE**

"Acto seguido toma la palabra la Sra. Presidenta quien informa a los/las Vocales de la Junta de Gobierno que con fecha 31/12/2019 finaliza el contrato firmado con la empresa "MIKEL MENDIZABAL & CIA. S.A.", C.I.F. Nº A48127815 para la prestación del "SERVICIO DE CONSULTORIA Y ASISTENCIA EN MATERIA DE CONTABILIDAD A LA INTERVENCIÓN DE ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA"

VISTO el escrito remitido a la empresa "MIKEL MENDIZABAL & CIA., S.A.", C.I.F. Nº A48127815 con fecha 23/10/2019 relativo a la prestación del





## GOBERNU BATZARRA – JUNTA DE GOBIERNO 2019/11/27

A

9

Nº.....ZKA.

UDALEN MANKOMUNITATE- KO KONTU-HARTZAILTZARI KONTABILITATE GAIAN AHOLKUAK EMAN ETA LAGUNTZEKO ZERBITZUA” ematearen gainekoa.

OINARRIA: “MIKEL MENDIZABAL & CIA., S.A.” enpresak (IFK zk.: A-48127815) 2019/10/28an, aipatutako zerbitzua 2020/01/01etik 2020/12/31ra bitartean emateko aurrekontu ekonomikoa aurkeztu zuen. Hemen bertako baldintzak:

“.....4.- Aipatutako jarduera garatzeko pertsona bat egongo da, zuen bulegora joango dena zerbitzua emateko, zuen ekipo eta informatika sistemak erabiliz.

5. Gure langileek zuen bulegoetan ematen duten denbora errealaren eta bertaratzeko gastuen eta denboraren arabera kalkulatu da aipatutako zerbitzuen ordainsaria. Horiek zehazteko, egunero zerbitzuari dagozkion parteak bete beharko dira.

Gure teknikariak lan hauexek bete beharko ditu:

- Diru sarreren eta Gastuen Urteko Aurrekontuak prestatzeko laguntza teknikoak. Egitura, edukia, aurrekontu kredituen lotura maila, urteanitzeko proiektioaren gastuak, etab.
- Diru Sarrera eta Gastuen Aurrekontuak betetzetik eratorritako eragiketen kontabilizazioa.
- Aurrekontukoak ez diren eragiketak, finantza inbertsioak eta finantzakoa ez den ibilgetuaren kontabilizazioa.
- Kontabilitate jarduera guztiak egiteko, tratamendu informatikoa salbu, gure langileak zuen bulegoetara joango dira.
- Aurrekontuak ixtea eta hasierako kredituak aldatzea.
- Ikuskaritza zerbitzuekin koordinatzea kontabilitate irizpide bateratuak finkatzeko.
- Urteko kontuak prestatzea, egoeraren balantzea, ekonomia eta ondare emaitzaren kontua, memoria eta aurrekontuaren

“SERVICIO DE CONSULTORIA Y ASISTENCIA EN MATERIA DE CONTABILIDAD A LA INTERVENCIÓN DE ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA” durante el año 2020

VISTO que la empresa “MIKEL MENDIZABAL & CIA., S.A.”, C.I.F. Nº A48127815 con fecha 28/10/2019 ha presentado un presupuesto económico para la prestación del citado servicio en el periodo comprendido entre el 01/01/2020 al 31/12/2020, en las siguientes condiciones:

“.....4.- Para el desarrollo de dicha actividad, se contará con una persona, que se desplazará a sus oficinas para realizar el servicio, utilizando sus equipos y sistemas informáticos.

5. Los honorarios por los citados servicios se calcularán en función de los tiempos de presencia efectiva de nuestro personal en sus dependencias, y los gastos y tiempos de desplazamiento. Para su concreción se formalizarán diariamente los correspondientes partes de servicio.

La actividad a realizar por nuestro técnico será la siguiente:

- Apoyo técnico para la preparación de los Presupuestos Anuales de Ingresos y Gastos. Estructura, contenido, nivel de vinculación de los créditos presupuestarios, gastos de proyección plurianual, etc.
- Contabilización de las operaciones derivadas de la ejecución e los Presupuestos de Gastos e Ingresos..
- Contabilización del inmovilizado no financiero, inversiones financieras, y operaciones no presupuestarias.
- Todas las actividades contables, a excepción de su tratamiento informático, se realizan mediante desplazamiento de nuestro personal a sus instalaciones.
- Cierre presupuestario y modificaciones de créditos iniciales.
- Coordinación con los servicios de Auditoria para el establecimiento de criterios contables uniformes.
- Preparación de Cuentas Anuales, Balance de Situación, Cuenta de resultado económico-patrimonial, Estado de



**GOBERNU BATZARRA – JUNTA DE GOBIERNO**  
**2019/11/27**

A

10

Nº.....ZKA.

likidazioaren egoera, Toki Erakundeen Aurrekontuari buruzko araubidearen foru araudiarekin bat etorriz”.

OINARRIA: ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAK adjudikaziodunari hilero ordaindu beharko dio aurreko hilean egindako zerbitzuen zenbatekoa, horretarako, ordea, adjudikaziodunak frogagiria aurkeztu beharko du eta onartu egin beharko da.

OINARRIA: Adjudikaziodunak isilpean gorde beharko ditu egindako jarduerak, ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEKO ez diren pertsonen dagokienez.

OINARRIA: Aurrekontuko gordailu nahikoa dago honako kontratu honen betebeharrei aurre egiteko.

OINARRIA: Aztertu da “MIKEL MENDIZABAL & CIA., S.A.” enpresak (IFK zka.: A-48127815) aurkeztu duen eskaintza, “ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEKO KONTU-HARTZAILTZARI KONTABILITATE GAIAN AHOLKUAK EMAN ETA LAGUNTZEKO ZERBITZUA” emateko 2020. urtean, hain zuzen ere 2020/01/01etik 2020/12/31ra bitartean. Horren zenbatekoa 45,00 euro/ordukoa da, BEZa barne, eta espedientean egiaztatuta dago kontratatu egin behar dela.

OINARRIA: Kontratu honi Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea. Horren bidez Espainiako ordenamendu juridikoan sartu ziren Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EU eta 2014/24/EU zuzentarauak, 2014ko otsailaren 26koak ezarri diren kontratu txikien xedapenak aplikatu behar zaizkio.

OINARRIA: Kontuan hartu da Toki Araubidearen Oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak xedatutakoa.

Jarraian Elejabarrieta andrea hartzen du hitza eta eskatzen duen datozen urteetarako, esleipen-tipoa hauek lizitazio publiko bitartez egin dezaten.

ARRATIAKO

UDALEN

Liquidación del Presupuesto y Memoria, de acuerdo con la Normativa Foral de Régimen presupuestario para Entidades Locales.-”

VISTO que ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA abonará mensualmente al adjudicatario la cantidad correspondiente a los servicios realizados durante el mes anterior, contra la presentación y conformidad del correspondiente documento probatorio.

VISTO que el adjudicatario deberá mantener el carácter reservado de las actuaciones realizadas, para con terceros ajenos a ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA.

CONSIDERANDO: Que existe consignación presupuestaria suficiente para hacer frente a las obligaciones derivadas del presente contrato.

VISTA la oferta presentada por la empresa “MIKEL MENDIZABAL & CIA., S.A.”, C.I.F. Nº A48127815 para la prestación del “SERVICIO DE CONSULTORIA Y ASISTENCIA EN MATERIA DE CONTABILIDAD A LA INTERVENCIÓN DE ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA” durante el año 2020, concretado desde el día 01/01/2020 al 31/12/2020, cuyo importe asciende a 45,00 euros/hora, I.V.A. incluido y acreditada la necesidad de contratación en el expediente.

CONSIDERANDO: Que resulta de aplicación las disposiciones sobre contratos menores contenidas en el Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/EU y 2014/24/EU, de 26 de febrero de 2014

CONSIDERANDO lo dispuesto en la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

Acto seguido toma la palabra la Sra. Elejabarrieta quien solicita que para posteriores anualidades, éste tipo de adjudicaciones se tramiten mediante licitación pública.

La Junta de Gobierno de ARRATIAKO



**GOBERNU BATZARRA – JUNTA DE GOBIERNO**  
**2019/11/27**

**A**

11

Nº.....ZKA.

MANKOMUNITATEKO Gobernu Batzarra arestian adierazi den horren guztiaren jakitun geratu da eta eztabaidatu ostean, AHO BATEZ, hauxe erabaki dute:

1.- Ontzat emango da 2020/01/01etik 2020/12/31ra bitartean "ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEKO KONTU-HARTZAILETZARI KONTABILITATE GAIAN AHOLKUAK EMAN ETA LAGUNTZEKO ZERBITZUA" kontratatzea.

2.- "MIKEL MENDIZABAL & CIA., S.A." enpresarekin (IFK zka.: A-48127815) kontratatuko da "ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEKO KONTU-HARTZAILETZARI KONTABILITATE GAIAN AHOLKUAK EMAN ETA LAGUNTZEKO ZERBITZUA", aurrekontu honen arabera: 45,00 euro/ordukoa da, BEZa barne.

3.- Kontratuko zerbitzuak betetzeko guztizko epea 2020/01/01etik 2020/12/31ra bitartekoa izango da, eta prezioak ezin izango dira berrikusi.

4.- Zerbitzua ordaintzeko, adjudikaziodunak benetan egindako beharren hileko faktura bidali beharko du eta organo eskudunak onartu egin beharko du faktura hori.

5.- Erabaki hau "MIKEL MENDIZABAL & CIA., S.A." enpresari (IFK zka.: A-48127815) jakinaraziko zaio eta honen kontra aurkez daitezkeen errekurtsoen berri emango zaio.-"

**3.2.- GAIA: 2020an ZERBITZU EMATEKO ENPRESEKIN KONTRATU TXIKIAK SINATZEKO PROPOSAMENA:**

**ARRATIAKO MANKOMUNITATEAREN GAZTELANIA/EUSKERA ZERBITZUA**

**UDALEN ITZULPEN**

"Jarraian, Presidente andreak hartu du hitza, eta Gobernu Batzarrako kideei

UDALEN MANKOMUNITATEA, quedó debidamente enterada de todo lo anteriormente expuesto, tras un debate y sometido el asunto a votación, por UNANIMIDAD; acordó:

1º.- Aprobar el gasto relativo a la contratación durante el periodo comprendido entre el 01/01/2020 al 31/12/2020 del "SERVICIO DE CONSULTORIA Y ASISTENCIA EN MATERIA DE CONTABILIDAD A LA INTERVENCIÓN DE ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA".

2º.- Contratar con la empresa "MIKEL MENDIZABAL & CIA., S.A.", C.I.F. Nº A48127815 la prestación del "SERVICIO DE CONSULTORIA Y ASISTENCIA EN MATERIA DE CONTABILIDAD A LA INTERVENCIÓN DE ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA", por un importe de 45,00 euros/hora, I.V.A. incluido .

3º.- El plazo total de ejecución de las prestaciones objeto del contrato será el comprendido entre el 01/01/2020 al 31/12/2020, no pudiendo ser objeto de revisión de precios.

4º.- El pago de la prestación del servicio se realizará previa emisión por el adjudicatario de factura mensual por los trabajos efectivamente realizados y previa aprobación de la misma por el órgano competente.

5º.- Notifíquese el presente acuerdo a la empresa "MIKEL MENDIZABAL & CIA., S.A.", con expresión de los recursos que contra el mismo puede interponer.-"

**3.2.- ASUNTO: PROPUESTA DE FIRMA CON EMPRESAS DE CONTRATOS MENORES PARA LA PRESTACIÓN DURANTE EL AÑO 2020:**

**SERVICIO DE TRADUCCIÓN CASTELLANO/EUSKERA DE ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA**

"Acto seguido toma la palabra la Sra. Presidenta quien informa a los/las



**GOBERNU BATZARRA – JUNTA DE GOBIERNO**  
**2019/11/27**

A

12

Nº.....ZKA.

jakinarazi die komeni dela AUM-n "GAZTELANIA/EUSKERA ITZULPEN ZERBITZUA" bat eukitea.

OINARRIA: Aztertu da "HORI-HORI, S.A.", (I.F.K. zka. A48464663) enpresari bidalitako idazkia, 2019/10/23koa, 2020. urtean "ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAREN GAZTELANIA / EUSKERA ITZULPEN ZERBITZUA emateko proposamen tekniko/ekonomikoa eskatzeko.

OINARRIA: "HORI-HORI, S.A." enpresak (I.F.K. zka. A48464663) 2019/10/31an, aipatutako zerbitzua 2020/01/01etik 2020/12/31ra bitartean emateko Txosten Teknikoa eta aurrekontu ekonomikoa aurkeztu zuen.

OINARRIA: Adjudikaziodunak isilpean gorde beharko ditu egindako jarduerak, ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEkoak ez diren pertsonen dagokienez.

OINARRIA: Aurrekontuko gordailu nahikoa dago honako kontratu honen betebeharre aurre egiteko.

OINARRIA: Aztertu da "HORI-HORI, S.A." enpresak (I.F.K. zka. A48464663) aurkeztu duen eskaintza, "ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAREN GAZTELANIA/EUSKERA ITZULPEN ZERBITZUA" emateko 2020. urtean, hain zuzen ere 2020/01/01etik 2020/12/31ra bitartean. Horren zenbatekoa:

- KARAKTERE: 0,0133 euro (BEZa barne)

OINARRIA: Kontratu honi Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea. Horren bidez Espainiako ordenamendu juridikoan sartu ziren Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EU eta 2014/24/EU zuzentarauak, 2014ko otsailaren 26koak ezarri diren kontratu txikien xedapenak aplikatu behar zaizkio.

OINARRIA: Kontuan hartu da Toki Araubidearen Oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak xedatutakoa.

Vocales de la Junta de Gobierno que se considera conveniente contar en AUM con un "SERVICIO DE TRADUCCIÓN CASTELLANO EUSKERA"

VISTO el escrito remitido a la empresa "HORI-HORI, S.A.", C.I.F. A48464663 con fecha 23/10/2019 relativo a la solicitud de una propuesta técnica/económica para la prestación del "SERVICIO DE TRADUCCIÓN CASTELLANO/EUSKERA DE ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA", durante el año 2020.

VISTO que la empresa "HORI HORI S.A.", C.I.F. A48464663, con fecha 31/10/2019 ha presentado una Memoria Técnica y un presupuesto económico para la prestación del citado servicio en el periodo comprendido entre el 01/01/2020 al 31/12/2020

VISTO que el adjudicatario deberá mantener el carácter reservado de las actuaciones realizadas, para con terceros ajenos a ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA.

CONSIDERANDO: Que existe consignación presupuestaria suficiente para hacer frente a las obligaciones derivadas del presente contrato.

VISTA la oferta presentada por la empresa "HORI-HORI S.A.", C.I.F. A48464663, para la prestación del "SERVICIO DE TRADUCCIÓN CASTELLANO/EUSKERA DE ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA" durante el año 2020, concretado desde el día 01/01/2020 al 31/12/2020, cuyo importe asciende a

- POR CARÁCTER: 0,0133 euros (IVA incluido)

CONSIDERANDO: Que resulta de aplicación las disposiciones sobre contratos menores contenidas en el Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/EU y 2014/24/EU, de 26 de febrero de 2014

CONSIDERANDO lo dispuesto en la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.





**GOBERNU BATZARRA – JUNTA DE GOBIERNO  
2019/11/27**

**A**

13

Nº.....ZKA.

Jarraian Elejabarrieta andrea hartzen du hitza eta eskatzen duen eskatzen duen datozen urteetarako, esleipen-tipoa hauek lizitazio publiko bitartez egin dezaten.

ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEKO Gobernu Batzarra arestian adierazi den horren guztiaren jakitun geratu da eta eztabaidatu ostean, AHO BATEZ, hauxe erabaki dute:

1.- "ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAREN GAZTELANIA/EUSKERA ITZULPEN ZERBITZUA" ematea kontratatzeari dagokion gastua onartzea, kanpo enpresa baten bitartez, 2020/01/01etik 2020/12/31ra bitartean.

2.- "HORI-HORI, S.A.", enpresearekin (I.F.K. zka. A48464663) kontratatuko da "ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAREN GAZTELANIA / EUSKARA MEZULARITZA ETA MANDATU ZERBITZUA", aurrekontu honen arabera:  
-KARAKTERE: 0,0133 euro  
(BEZa barne)

3.- Kontratuko zerbitzuak betetzeko guztizko epea 2020/01/01etik 2020/12/31ra bitartekoa izango da, eta prezioak ezin izango dira berrikusi.

4.- Zerbitzua ordaintzeko, adjudikaziodunak benetan egindako beharren hileko faktura bidali beharko du eta organo eskudunak onartu egin beharko du faktura hori.

5.- Erabaki hau "HORI-HORI, S.A.", enpresari jakinaraziko zaio eta honen kontra aurkez daitezkeen errekurtsoen berri emango zaio."

**3.3.- GAIA: 2020an ZERBITZU EMATEKO ENPRESEKIN KONTRATU TXIKIAK SINATZEKO PROPOSAMENA:**

ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEKO ETA "ARRATIAKO EGOITZA HERRI ERAKUNDE AUTONOMOKO LANGILEEN LAN-KUDEAKETA ZERBITZUA

"Gero Presidente andreak hitz egin

Acto seguido toma la palabra la Sra. Elejabarrieta quien solicita que para posteriores anualidades, éste tipo de adjudicaciones se tramiten mediante licitación pública.

La Junta de Gobierno de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA, quedó debidamente enterada de todo lo anteriormente expuesto, tras un debate y sometido el asunto a votación, por UNANIMIDAD; acordó:

1º.- Aprobar el gasto relativo a la contratación a través de una empresa externa de la prestación del "SERVICIO DE TRADUCCIÓN CASTELLANO/EUSKERA DE ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA" durante el periodo comprendido entre el 01/01/2020 al 31/12/2020

2º.- Contratar con la empresa "HORI-HORI, S.A.", C.I.F. A48464663, la prestación del "SERVICIO DE TRADUCCIÓN CASTELLANO/EUSKERA DE ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA" por un importe de:  
- POR CARÁCTER: 0,0133 euros  
(IVA incluido)

3º.- El plazo total de ejecución de las prestaciones objeto del contrato será el comprendido entre el 01/01/2020 al 31/12/2020, no pudiendo ser objeto de revisión de precios.

4º.- El pago de la prestación del servicio se realizará previa emisión por el adjudicatario de factura mensual por los trabajos realizados y previa aprobación de la misma por el órgano competente.

5º.- Notifíquese el presente acuerdo a la empresa "HORI-HORI, S.A." con expresión de los recursos que contra el mismo puede interponer."

**3.3.- ASUNTO: PROPUESTA DE FIRMA CON EMPRESAS DE CONTRATOS MENORES PARA LA PRESTACIÓN DURANTE EL AÑO 2020:**

- SERVICIO DE GESTIÓN LABORAL DEL PERSONAL DE ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA Y DE "ARRATIAKO EGOITZA – HERRI ERAKUNDE AUTONOMOA"

"Acto seguido toma la palabra la



## GOBERNU BATZARRA – JUNTA DE GOBIERNO 2019/11/27

A

14

Nº.....ZKA.

du eta Gobernu Batzarraren mahaikideei jakinarazi die 2019/12/31n amaituko dela "ARRATIako UDALen MANKOMUNITATEKO ETA "ARRATIako EGOITZA HERRI ERAKUNDE AUTONOMOKO LANGILEEN LAN-KUDEAKETA ZERBITZUA" emateko "MIKEL MENDIZABAL & CIA. S.A." enpresarekin (IFK zk.: A48127815) sinatutako kontratua.

OINARRIA: Aztertu da "MIKEL MENDIZABAL & CIA., S.A.", (IFK zk.: A-48127815) enpresari bidalitako idazkia, 2019/10/23koa, 2020. urtean "ARRATIako UDALen MANKOMUNITATEKO ETA "ARRATIako EGOITZA HERRI ERAKUNDE AUTONOMOKO LANGILEEN LAN-KUDEAKETA ZERBITZUA" ematearen gainekoa.

OINARRIA: "MIKEL MENDIZABAL & CIA., S.A." enpresak (IFK zk.: A-48127815) 2019/10/28an, aipatutako zerbitzua 2020/01/01etik 2020/12/31ra bitartean emateko aurrekontu ekonomikoa aurkeztu zuen. Hemen bertako baldintzak:

- Gizarte Segurantzaren altak, bajak eta aldaketak.
- Soldaten ordainagiriak egitea hileroko.
- Gizarte Segurantzako zein lan-istripurako Araubide Orokorreko kotizazio-buletinak aztertzea eta formalizatzea. Halaber, langileen izenak azaltzen diren zerrenda ematea (tc-1 eta tc-2...), baita berez dagozkien izapideak ere.
- Lan-istripuengatikoa nahiz gaixotasun profesionalengatikoa txostenak eta dokumentuak formalizatzea, baita ohiko gaixotasunengatikoa, amatasunengatikoa edo lanekoak ez diren istripuengatikoa ere.
- Langilearen lanpostu-uzteari dagokion kitzatzearen ordainagiria egitea.
- Kontratuak prestatu eta izapidetzea, baita aldi baterako luzapenak eta kontratuen epemugaren aurreabisuak ere.
- PFEZren atxikipenen ziurtagiria egitea (10-T eredu)
- Langileen PFEZeko atxikipenak egitea

